

-(e)ta enklitikoa sailkapen eskalarrean

KARMELE ROTAETXE AMUSATEGI*

Hizkuntza-elementu batzuk gaitzak izaten dira sailkatzeko eta pentsa daiteke kategoria-noziotik datorrela arazoa. Oso sarritan kategoria konkretu bati ezin zaizkio egokitu—eta, ardatz eskalarra proposatu behar da, “continuum” batean kokatzeko. Hau da -(e)ta enklitikoa deitutako elementuarekin gertatzen dena; gure hipotesiaren arabera, -(e)ta enklitikoa ez da juntagailua (gehienetan forma idatzi bera eduki arren) baina menderagailua ere ez da. Egoera zalantzatsu hau da lan honek argitu gura duena.

Deiturari dagokionez, ETA ENKLITIKOA erabiliko da; gramatika-ikus-puntutik, izendatze aproposena ez bada ere, ikusiko da enklitikotasunak ezaugarri bereizletzat funtzionatzen duela, arrazoi bategatik: eransketa prozedurak ekarritako ondorio fonikoa da eta, jakina denez, eransketa gramatika-propietatea dugu. Zenbait ikasketatan, beste deiturapean aurkezten da elementu hau: *itsatsitako eta* edo *eta atxikia*, alegia. Edozein modutan, -(e)ta/-(e)ta edo -(E)TA notazioa erabiliko dugu eta juntagailua idazteko (e)ta/(e)ta edo (E)TA. Lan honetako notazioari buruz, zer edo zer gehiago aipatu behar da: adibideetako erreferentzia ematean, EUSK izango da *Euskaltzaindia*.

Agerrerari dagokionez, -(e)ta topa daiteke aditz ez-jokatuekin eta aditz jokatuekin. Lan honetan aditz jokatudun esaldietan mugatuko gara.

1. ARAZOAREN AURKEZPENA

Ikus ditzagun ondoko adibideok:

- (1) Udako eguzkiak poztu egiten nau (e)ta neguko euriak tristetu
- (2) Azkarra da-(e)ta, berehala etorriko da Jon

Perpau bi hauen arteko antzekotasunek eta diferentziek erakusten dute zein den arazoa; hona hemen egin daitezkeen lehenengo oharrak:

* Hizkuntzalaritza Orokorreko Unibertsitate-Katedraduna, UPV/EHUan.

1.0. Bistan dago adibideetako *(e)ta*, eta *-(e)ta* elementuek forma idatzi be-
ra dutela eta ezaugarri foniko bat: hasierako *e* bokalaren aferesia. *E* hori ez da,
gehienetan, ahoskatzen eta, sarritan, idazten ere ez. Horregatik, parentesi ar-
tean kokatu da (ikus. Erabilera 3 §).

1.1. (1)ko perpausean, ETA Emendiozko Juntagailua da, betetzen duen
funtzioagatik: izan ere, juntatzen dituen osagaiak (*udako eguzkiak poztu egi-
ten nau*) (*neguko euriak tristetu*) maila bereko perpausak dira eta bien artean
perpaus elkartua osotzen dute. Gainera, perpaus baten eta bestearen edukia-
ren konparazioak azaltzen du ez dagoela menpekotasun-erlaziorik eta argi da-
go osagai bata zein bestea perpaus konposatutik ateratzen bada esangura
mantentzen dela (cf. 2.3. §).

- (2) adibideko *-(E)TA*ren funtzioa ez da juntagailukoa, gure hipotesian,
menderagailu osokoa ez bada ere. Ideia hau sostengatzeko, *-(E)TA*-k dituen
ezaugarriak zehatzago ikusiko dira aurrerago. Oraingoan, (1)ko *ETA*-tik be-
reizteko asmoz, unitate bien formen ikuspuntutik, honetaz ohartzen gara:
(1)ko *ETA* eta (2)ko *-(E)TA* ez dira homofonoak, ahoskatze ezberdinei esker
(eta idazkerari esker, kasu honetan baina ez beti) elementu biak elkarrengan-
dik bereizten dira. Edukiari dagokionez, pentsa daiteke (2)ko perpaus-osagai
bakoitzaren esangura ez dela guztiz libre eta esaldi orokorraren esangurak
baldintzatuta dagoela. Duda barik, ez genuke ondo interpretatuko *berehala
etorriko da Jon* osagaiaren esangura ezagutuko ez bagenu (*Jon*) *azkarra da* osa-
gaiaren esangura. Bide batez, azpimarratzekoa da *azkar* eta *berehala* hitzen
esanahien arteko lokarria¹.

2. ETA ETA *-(E)TA*-REN EZAUGARRIAK ETA PROPIETATEAK

2.1. Adizki motak

- *(E)TA* ez da aurkitzen edozein adizkirekin. Adibidez, ez da erabiltzen
subjuntibozko formetan (3), hauek *-n* subordinazio markaz osotuak direlako,
eta horrek frogatuko luke *-e(ta)* menderagailua dela (cf. 4.2 §). Ez dago, or-
dea, bat ere problemarik *ETA* Juntagailua erabiltzeko subjuntibozko adizkiak
dituzten perpausen artean (cf. (4) adibidea).

(3) *Jonek gura du Ane etor dadin-eta (hori) egin dezan

*X_ik gura du-Ø_i Y_j. etor dadin_j-eta (hori)_k egin k_d- eza-Ø_j-n

(4) Jonek gura du Ane etor dadin eta hori egin dezan

Baldintzazko sisteman, *ba*- formek ezin dute *-(e)ta* eramán, berez subor-
dinatuak baitira. (5) eta (6). Baina halako baldintzetan, *ETA* Juntagailua nor-
mala da (7), (8):

(5) *Hor balego-*(e)ta*, berehala egingo luke

(6) *Hau egingo banu-*(e)ta*, poz-*poz*ik nengoke

(7) Barriketia balitz goruba (eta) jarduna balitz ardatza nire andreak egingo
leuke (Herri kanta)

¹ Lotura hau nabari da, bereziki, *azkarra*-ren antonimoa erabiltzen denean, kasu konkretu hone-
tan, jakina. Harritzekoa litzateke *Motela da eta berehala etorriko da Jon*, “*motela*” eta “*berehala*” duten
ezkontze txarragatik.

- (8) Antza denez, Kasinora joango balitz, irabaziko luke eta alde egingo luke Baldintza esplizitorik ez dagoenean ere, *ke-dun* formek *eta* Juntagailua onartzen dute juntadura:
- (9) Ni neu joango nintzateke eta oparia eramango nioke izekoari.

2.2. Fonologia-Maila eta Morfologia lexiko-Maila

Forma idatziaz gainera, elementu bi hauek beste propietate amankomun bat dute: goian aipatu denez, hasierako *e*-ren aferesia, *eta*-ren ordeztu *ta* ahoskatzeko, bai juntagailua denean (10) eta bai enklitiko denean (11).

(10) Hi ta ni bi gaituk (EUSK, 1994a: 21)

(11) Ama zera-ta semien alde zuk zer egingo ez dezu? (Mitxelena, Sa. in EUSK, 1984)

Bestalde, ahosko bariatatean, juntagailua denean *da* entzun daiteke, *ta*-ren ordeztu:

(12) Han da hemen bizi da (EUSK, 1994a: 21)

Enklitiko denean, ez diurudi fenomeno hori jazoten denik

Hala ere, elementu bi hauek elkarrengandik bereizten dira, ahoskatze ezberdinei esker. ETA Juntagailua [+azentudun] elementua den bitartean, -(E)TA Enklitikoak ez dauka azenturik; egia esateko, [-azentudun] da eta behe-rago (2.2.1 §n) ikusiko da zergatik. Hori delata, azentu-talde² kopuru desberdina entzuten da, juntagailua denean eta enklitiko denean. Eta, gainera, azentu-taldeekin lotuta dauden etenaldiak ere (ebaketak/isiluneak) ezberdinak dira: ETA-ren kasuan, hiztunak egin ditzake hiru etenaldi edo bi, baina enklitiko denean, derrigorrezko etenaldi bat egin behar du -(E)TA ahoskatuta gero, honen aurretik ezinezkoa izanik. Hona hemen gutxi gorabeherako eskemak:

(13a) ETA JUNTAGAILUA (I ESKEMA)

(I) Perpaus osagai / ≠³ ETA (≠) Perpaus osagai#

AZENTU-TALDEA(k) etena AZENTU-HITZA etena AZENTU-TALDEA(k)#

Udako eguzkiak poztu egiten nau≠eta(≠)neguko euriak tristetu#

Hiru azentu-talde eta hiru etenaldi egitea zilegia da edo bi (hautazkoa, bigarrena), osagaien iraupenaren arabera. Gaitza dirudi (ezina ez bada ere) barruko etenik ez egitea. Baina adierazgarria ez da hau, etenen kokagunea baino -(E)TA-ren eskemek erakusten dutenez.

(13 b) -(E)TA ENKLITIKOA (II ETA III ESKEMAK)

-(II) Perpaus-osagai (adizki⁴)-(E)TA≠ Perp. osagai#

AZENTU-TALDEA(k)etena AZENTU-TALDEA

Azkarra da-(e)ta≠ berehala etorriko da Jon#

-(III) Perpaus-osagai (≠) Perpaus-osagai (adizki)-(E)TA#

AZENTU-TALDEA(k) (etena) AZENTU-TALDEA(k)

Berehala etorriko da Jon (≠) azkarra da-(e)ta#

² Azentuari, euskal azentuari, azentu taldeari dagokionez, cf. K. Rotaetxe (1978b), (1981), adibidez.

³ Ageri diren ikurrak sinbolo konbentzionalak dira zera ordezkatzeko: ≠: esaldiaren barruko etena eta #: eten absolutua, hau da, esaldi-amaieraren etena, abotsa guztiz behera daramana. Bestalde, () adierazten dute etena (edo beste fenomenoren bat) egitea hautazkoa dela.

⁴ Laburrago egiteko "adizki" jartzen dugu. Baina gure testuan zehar esanda dago -(e)ta-ren aurreko elementua adizkia dela oso sarritan, baina beste elementuren bat ere izan daitekeela (ikus. bereziki 5.2.1 eta 6 §.).

Enklitiko-kasuan eta kokagunearen arabera esaldi mota bi ditugu. Batean zein bestean, ezin egin daitezke hiru azentu-talde, -(E)TA ren aurretik etenaldia debekatuta dagoelako, bere atzetik derrigorrezkoa izanik Hau esanda, III eskeman, lehenengo etena barnekoa da eta hautazkoa du hiztunak (\neq), gorago aipatutako parametroen arabera. Eta, jakina, ageri den beste etenaldia derrigorrezkoa da -(E)TA-ren ostean dagoelako; gainera, absolutua da esaldiaren amaiera seinatzeko. II eskeman, berriz, eten biak derrigorrezkoak dira; lehena -(e)ta-ren ostekoa delako eta bigarrena absolutua delako. Ahoskatze mota hauetan (II eta III eskemetan), -(E)TA ez da isolaturik geratzen I eskeman gertatzen zen moduan. Pentsa daiteke bereizketa horren oinarrizko sustraia (eta azalpena) Morfologia mailan (eta Hiztegikoan) bilatu behar dela. Adibidez, ETA berba den bitartean, -(E)TA ez da hein berdineko hitza. Garrantzitsua da alde hau elementu bakoitza hobeto ezagutzeko, segidan ikusiko denez (cf. 2.2.1 §).

2.2.1. Morfologia lexikoa

Jakina denez, hizkuntzetako elementuen artean, mota bi bereizten dira: hiztegiari dagozkionak eta gramatikari dagozkionak. Lehenek azentua (azentu tiporen bat) izaten duten bitartean, bigarrenen artean batzuek ez dute azenturik edukitzen. Beraz, hiztegiko unitateak eta gramatika unitate batzuk [+azentudun] elementuak dira, libreak (edo solteak) ageri dira eta isolaturik ahoska eta erabil daitezke (pertsonek izenordainak, juntagailuak...). Multzo honetan sartzen ez diren gramatika-elementuak [-azentudun] izaten dira eta ez dira berba libreak. Oinarri orokor hauen ondorioak oso ondo ikusi zituen Azkue-k esan zuenean: “Las conjunciones afijos son, por lo general, subordinativas, y coordinativas las conjunciones **vocablos**” (Azkue, *Morfología II*, 478 orr “vocablos”, geuk azpimarratua).

Juntagailuaren eta enklitikoaren arteko alde ulertzeko balio du bereizketa honek. Izan ere, ETA juntagailuak zer edo zer adierazten du; ez dauka, jakina, hiztegiko unitateen esangura mota (*gela*, *emakume*, *ontasun*, etab.), baina “gainera”-ren medio ordezkia daiteke, hau da, hiztegiko unitatearen medio, ondoren ageri denez:

(14) Manu ez da bazkaltzera etorri eta (*gainera*) ez dakigu nondik dabilen

Aldi berean, ETA Juntagailua [+azentudun] berba librea da (etenen arteko kokatzen dela ikusi dugu) eta isolaturik ageri da. Horregatik, ahaltasuna du, soil-soilik, itauna gauzatzeko (cf. 24) edota esaldiari hasiera emateko (cf.4.1 (26)).

Beste gramatika-unitateak [-azentudun] elementuak dira; ez dira libreak eta ezin dira erabili isolaturik: hitz batez, ez dira hiztegiaren berbak baizik eta atzizkiak⁵, aurrizkiak, klitikoak etab. Azaltzen duten esangura gramatikala da. Eta ordezkatzekoan, gramatika-elementuak erabiltzen dira, ez hiztegikoak. Hauen artean, -(E)TA enklitikoak dugu. Goragoko eskemek erakutsi dutenez, ezin da mugitu bere ezkerreko unitatetik (adizkia, gehienetan, baina ez beti) eta ez dauka berezko azenturik. Horrexegatik, -(E)TA enklitikoak dei egiten diogu.

⁵ Ez dugu esan gura, euskara-kasuan, atzizki denak [-azentudun] direnik baizik eta hizkuntzetan zehar atzizkiak halakoak izaten direla. Baina, euskal atzizki batzuk [+azentudun] edo [+azentugarri] dira (Rotaetxe, 1978a: 4 §).

Menpekotasun hori dela eta, -(E)TAdun perpaus osagaia mugi badaiteke ere esaldiaren barruan, geroago ikusiko denez, -e(ta) bera ezin dugu isolatu. bere aurreko unitatetik (adizki+ +(x)-(e)ta); ez dauka ahoskera librerik ez eta erabilerara isolaturik. Hitz batez, hiztegiari ez dagokio, gramatikari baino. Morfematzat har daiteke eta, bere tokiagatik, atzizkitzat (baina ikus. 5.2.§).

2.3. Semantika maila

Edukiari dagokionez, hona hemen parafrasitasun-frogak azaltzen duena, juntagailua dugunean (a-) eta enklitikoaren denean (b-):

a-

(1') Udako eguzkiak poztu egiten nau eta neguko euriak tristetu

Esaldi honen parafrasiak hauek ditugu:

(15) Udako eguzkiak poztu egiten nau, neguko euriak tristetu

alborakuntza hutsa nahikoa delarik, (1').ko edukia bideratzeko; jakina denez, alborakuntza Ø juntagailua duen juntadura da.

(16) Udako eguzkiak poztu egiten nau **baina** neguko euriak tristetu

aurkaritzako juntagailuduna (cf. EUSK, 1994a: 183, adibidez, trukaketa hau justifikatzeko).

Bistan dago, ez (1') esaldiak ez eta dituen parafrasiak (15) eta (16) ez dute menpekotasun erlaziorik adierazten. Osagai bakoitzaren esanahia libre dago eta, adibidez, lehen osagaiarenak ez du eskatzen, derrigor, bigarren osagaiaren esangura konkretuaren bat agertzea. Esaldia izan zitekeen, esate baterako, *Udako eguzkiak poztu egiten nau eta kolore osasuntsua ematen dit.*

b-

Menpekotasun erlazioa adierazi gura izanez gero, sortzen den perpausa (onargarria izatekotan) ez dirudi (1')ko parafrasia denik:

(17) * Udako eguzkiak poztu egiten nauelako neguko euriak tristetu

Hain zuzen ere, menpekotasun erlazioa (2) ereduko esaldiaren parafrasiak adierazten dute, era honetan⁶:

(2') Azkarra da-(E)TA, berehala etorriko da Jon

(18) Jon azkarra delako berehala etorriko da

(19) Jon azkarra denez gero, berehala etorriko da

(20) Jon azkarra baita berehala etorriko da, edo

(21) Jon berehala etorriko da, azkarra baita azkenengo bi hauek Ekialdekoak izanik.

Beraz, parafrasitasun-frogaren arabera, (1') eta (2')ko ereduaren esaldiak ez direla baliokideak: (1')ko kasuan, lotura hutsa dugun bitartean, (2')ko kasuan lotura hutsa baino subordinazio kutsua nabari da gehiago. Badirudi,

⁶ Parafrasiak izateak ez du esan gura sinonimo hutsak direnik.

gainera, subordinazio “kutsu” edo “ñabardura” hori kausala dela, zehatzago ikusiko denez.

Hau dena ikusita, ETA eta -(E)TA elementuen arteko aldea(k) argitu behar dira zehatzago. Oraingoz egindako azterketek azaldu dute unitate ezberdin biren aurrean gaudela: forma idatzi bera badute ere, ez dira homofonoak (2.2 §); eta edukiaren aldetik, ez dute parafrasi berdinek (2.3 §). Falta da azaltzea zein klaseri edo kategoriari dagozkion -(E)TA eta (E)TA, bakoitzak duen funtzioa finkatzeko (4 eta 5 §). Hau dena bideratzeko, juntagailuaren eta enklitikoaren **ezaugarriak** konparatuko ditugu gaurko erabileraren eta literaturaren adibideen medio. Dugun egoera zalantzatsu hau -(E)TAren funtzioak argitu beharko luke, aldeztatik susmatzen bada ere esaldi denak ezin izango ditugula sailkatu juntaduraren multzoan ala menderakuntzakoan.

3. ERABILERA

Ondorengo adibideetan, aurki daitezke (E)TA eta -(E)TA. Grafiari dago-kionez, idazle batzuek ezberdindu dute juntagailua eta enklitikoa: halako kasuetan, ez dugu geuk seinale gehigarririk ipiniko. Besteetan, enklitikoa *kurtsibotan* idatziko dugu:

- (22) Beroa etorri zaigu eta ez dut jantzi arinik atondu
- (23) Poztu gaitezen denok, eta eman ditzagun eskerrak (B. Atxaga, 1984: 87)
- (24) Obabako auzunerik urrunenak Albania zuen izena, eta ez zeukan ez karreterarik, ez eskolarako etxe berririk; **eta**, hala, beste aukerarik ezean, bertako...(B. Atxaga, 1984: 41)
- (25) Oso tenperatura altuak dira-**ta**, jende askok hiritik ihes-egin du
Hurrengoan, ETA esaldiaren hasieran dago. Kokagune hori betetzeko, berba librea izan behar da eta, gorago esanda dagoenez, juntagailua.
- (26) **Eta** iritxi huen karrera eguna, igande bat, **eta** denok oraintxe ikusten ari garen gailur honetara igo ginduan, oinez aldi hartan, zeren gurasoek, automobila asko izango zela **eta**, ez baitziguten bizikletarik hartzen utzi; **eta** etorri **eta** horko munto horretan eseri ginduan, ikusten duk?.. (B. Atxaga, 1984:131)

Hona hemen bestalde, itauna gauzatzeko ETA soilik erabiltzen den adibide bat:

- (27) “Bai, bai, ikusten diat”, baieztatu zuen lagunak.
“Hortik dakarkigun bide honen puska bat ikusten baita, horregatik jarri ginduan hor
“**Eta?**..” (B. Atxaga, 1984: 133)
- (28) Bai Jauna, aingeruai **ta** zeruko deunai be, geure bitartekoak dira-**ta**, otoitz egin bear dautsegu (Izenik gabe in EUSK, 1984)
- (29) Elkarren etsai bizi dira-**ta** gauz (sic) onik ez uritarrak (Arrese, Oler. in EUSK, 1984)
- (30) Ama zera-**ta** semien alde zuk zer egingo ez dezu? (Mitxelena, Sa. in EUSK, 1984).

4. PERPAUS JUNTATUEN ETA PERPAUS TXERTATUEN MUGIKORTASUNA-

Perpausak, elkartzen direnean beste perpaus handiago bat emateko, izan daitezke mugikorrek edo ez. Propietate hau garrantzitsua da perpaus txertatuak perpaus juntatuetatik bereizteko.

Txertatuek osagaien arteko mugikortasuna izaten dute; jakina denez, menpekotasunak inposatzen duen morroikeria zelan edo holan konpentsatzen da perpaus mota hauek duten libertatearen edo mugikortasunarren bidez. Esaterako, oraintxe aipatu dugun esaldia, beste era honetan ere adieraz daiteke:

(30'a) Ama zara-ta semien alde zuk zer egingo ez dezu?

(30'b) Semien alde zuk zer egingo ez duzu ama zara-ta?

Edo beste hau:

(2'a) Azkarra da-ta, berehala etorriko da Jon

(2'b) Berehala etorriko da Jon, azkarra da-ta.

Kasu batean eta bestean, -(E)TA enklitikoa mantentzen da. Mugitzen dena da lehen aipatu dugun blokea edo multzoa (*adizki(+X)-eta*). Mugikortasun hau aurrerago frogatuko dugu berriro beste *-(e)ta*-dun esaldi batzuetan. Oraingoz interesatzen dena propietatea bera da, juntagailua eta enklitikoa bereizteko asmoz. Izan ere, beste toki batean hau irakurtzen da: "...perpaus txertatuek perpaus ez diren gainerako osagaiek perpausaren barruan duten mugikortasuna erakutsiko dute. Mugikortasun hau falta dute perpaus juntatuek" (EUSK, 1994a: 9).

Baieztapen bi hauek astiro aztertu behar dira. Lehena, oraintxe egiaztatu egin dute (30a) eta (30b) adibideek; baina juntatuei buruzko baieztapena bigundu egin behar, duda barik. Egia bada perpaus juntatu batzuk ezin direla mugitu (31a), (31b), beste batzuek mugikortasun-ahaltasuna dute (1'a), (1'b):

(31a) Lehengoan mendira joan ginen eta bazter politak ikusi genituen (EUSK, 1994a: 5)

(31b.) ?/?* Bazter politak ikusi genituen eta lehengoan mendira joan ginen

(1'a) Udako eguzkiak poztu egiten nau eta neguko euriak tristetu

(1'b) Neguko euriak tristetu (egiten nau) eta udako eguzkiak poztu.

Eta (31b) eta (1'b) konparatzen baditugu zera ikusten da: lehenbiziko kasuan (31a)n, kronologiak ordenatutako prozesuak adierazten ditu esaldiak, hor dugu seinaleztat "lehengoan" eta, jakina, ezin da kronologia hori aldatu onargarritasunari kalterik egin gabe (31b). Azken honetan egindako permutazioak apurtu egiten baitu komunikazioak hizkuntza-diskurtsoari eskatzen dion koherentzia edo elkar moldaketa. Baina (1'a)ko esaldiak ez du kronologia-ordenik adierazten-eta, (1'b) esaldia guztiz gramatikala eta onargarria dugu. Arazo horretan gehiago ikertu beharko litzatekean gaude denbora-kronologia murrizketarik bakarra den ala ez jakiteko. Baina ditugun adibideen arabera, hola dirudi. Esaterako, orden kronologikorik erakusten ez du-

⁷ ? Ikur honek esaldia zalantzatsua dela gramatikaltasunaren aldetik adierazten du (cf. "Signos utilizados" in I. Bosque, V. Demonte (ed.) (2000).

ten (22'a)ko eta (22'b)ko esaldiak gramatikalak diren bitartean, (23'a) eta (23'b) perpausek orden hori azaltzen dute eta agramatikala da bigarrena; azken kasu honetan, pentsa daiteke orden kronologikoa datorrela gure ohitura sozialetik: normalean, "eskerrak emate" prozesua "poztea" baino geroago jatzoten da-ta (ikus. beherago).

(22'a) Beroa etorri zaigu eta ez dut jantzi arinik atondu

(22'b) Ez dut jantzi arinik atondu eta beroa etorri zaigu

Hemengo "eta" juntagailua da, duda barik eta (22'b) onargarria eta gramatikala dugu, trukaketa zilegi delarik. Esanari jarraituz, (22'a) esaldiak ez du adierazten prozesu bietatik bat bestearen ondoren datorrenik Bistan dago *jantzi arin atontzea* jazo daitekeela *beroa etorri* baino lehenago. Hurrengoan, baina, permutazioa agramatikala da eta horretarako arrazoia hau litzateke: esaldia ulergarria izan dadin *poztu gaitezen denok* prozesua *eman ditzagun eskerrak* prozesua baino lehenago gertatua izan behar eta horixe da (23'a) esaldiak adierazten duena; ondorioz, permutaziotik datorren esaldiak (23'b) orden egokiaren aurka doa.

(23'a) Poztu gaitezen denok, eta eman ditzagun eskerrak

(23'b) ?/*Eman ditzagun eskerrak eta poztu gaitezen denok

Gauza bera esan daiteke juntagailudun (24) esaldiari buruz. Deskripzioa egiteko mementuan, egileak tokiaren izena eman gura izan du lehenbiziz. Eta hortik dator berak aukeratutako orden kronologikoa, ETA-ren bidez seinalatu. Orden hau trukatuta ageri denean, perpausa agramatikala da, edo -guxienez- oso zalantzatsua, (24'b) esaldian.

(24'a) Obabako auzunerik urrunenak Albania zuen izena, eta ez zeukan ez karreterarik, ez eskolarako etxe berririk; eta, hala, beste aukerarik ezetan, bertako ... (B. Atxaga, 1984: 41).

(24'b) ?/*Ez zeukan ez karreterarik ez eskolarako etxe berririk eta Obabako auzunerik urrunenak Albania zuen izena...

Juntagailudun esaldi batzuetan (32)koa adibidez, ordena aldaerak perpausosagaien arteko erlazioaren aldaera dakar koordinaziotik subordinaziora igarotzeko. Eta espero denez, trukaturako esaldiaren esangura ezberdina da (33):

(32) Berandu altxatu naiz eta sukarra nuela ikusi dut (EUSK, 1994a: 9)

(33) Sukarra nuela ikusi dut-eta, berandu altxatu naiz

Beraz, juntura betetzen duen elementua -(E)TA denean, permutazioak dakarren esaldia gramatikala eta onargarria delarik, hautazkoa du hiztunak. Ideia hau finkatzeko, hona hemen beste -(e)ta-dun adibide batzuk:

(25'a) Oso tenperatura altuak dira-ta, jende askok hiritik ihes-egin du.

(25'b) Jende askok hiritik ihes-egin du, oso tenperatura altuak dira-ta.

(28'a) Bai Jauna, aingeruai ta zeruko deunai be, geure bitartekoak dira-ta, otoitz egin bear dautsegu

(28'b) Bai Jauna, aingeruai ta zeruko deunai be otoitz egin bear deutsegu, geure bitartekoak dira-ta

(29'a) Elkarren etsai bizi dira-ta gauz onik ez uritarrak

(29'b) Gauz onik ez uritarrak elkarren etsai bizi dira-ta.

Laburtuz, enklitikoa denean, permutazioa zilegia da eta hautazkoa, osagaien luzaeraren arabera edota edukiaren arabera. Juntagailua denean, truka-

keta ezina da esaldi mota batzuetan: gure ustez, prozesu biak orden kronologiko batean aipatuak direnean. Murrizketa hau sostengarria bada ere orain arte erabilitako datuekin, ez dakigu bakarra den ala ez. Baina arazo hau argitzea ez dagokio lan honi.

4.1. ETA-ren eta -(E)TA-ren Distribuzioak

Goiko lerroek erakutsi dute ETA eta -(E)TA-ren distribuzioak desberdina direla eta, jakina denez, distribuzio-froga erabili ohi da unitateen klasea (edo kategoria) finkatzeko. Eman dezagun ezagutu behar dugula zein klaseri dagokion A deitutako elementua eta B deitutakoa. Klase desberdinetakoa izango dira baldintza hau betetzen bada: A elementuak berezko distribuzio-mota bat azaltzen duela, eskusiboa duena eta B elementuak ez duena. Eta, alderantziz, B elementuak berezko distribuzioa eduki behar du, A elementuak ez duena. Baldintza bikoitz hori bete bada, esan daiteke A eta B unitateak klase (edo kategoria) desberdinetakoak direla⁸.

Alde horretatik, adibideen zehar ikusi da, ETA kokatzen dela, gehiengotan, perpaus osagai bien artean, etenaldiak gauzatzea libre izanik, informazio mota edota estilo motaren arabera (ikus. 2.2). Hau da egitura:

(34) [[P1](ETENALDI BAKUNA) ETA (ETENALDI BAKUNA)][P2]] #, non P1 eta P2 perpaus parekoak dira (ikus zehatz handiagorako goiko 2.2.ko eskemak).

Perpaus osagaien artean -(E)TA ere ager daiteke. Baina, orduan, etenen kopurua desberdina da, -(E)TA ahoskatuta gero, eten bat derrigorrezkoa izanik. Distribuzio hau enklitikoari dagokio soilik, juntagailuak ez dauka eta. Beraz, hau da bilatu behar genuena, -(E)TA juntagailuaren klasekoa ez dela ziurtatzeko. Hona hemen esaldi mota honen egitura:

(35) [P1[Adizki (elemendu)-(e)ta] ETENALDI BAKUNA [Perpaus-Osagaia]#]

Gainera, ETA-k beste distribuzio-mota bat dauka, bereizgarria dena, zailantza barik. Esaldiaren hasieran koka daiteke eta -(E)TA ez litzateke sekula toki horretan agertuko. Gorago aipatu dugun (26) adibidea errepikatzen dugu ondoren:

(26') Eta iritxi huen karrera eguna. igande bat, eta denok oraintxe ikusten ari garen gailur honetara igo ginduan... ; eta etorri...
edo beste berri hau:

(36) esperantza baitut zeruko lorian (...) kredit handiarekin zaudela, eta hortik helduko zatzaizkidala (...) eta arranoak aidean dohanean bere ume-tara bezala zuk ere enegana begia edukiko duzula . **Eta** gero nik ere (...) zure sorthe ona erdietsiko dudala .. (P. Axular, Gero, 5, EUSK, 1984)

Esaldi bi hauetan ETA-k balio anaforikoa duela pentsa daiteke, bere aurreko esaldiaren edukia lotzeko. Susmatu behar da, gainera, (26') edo (36)ko eredu-esaldiak ematen direnean, komunikazio-partaideek zati implizittoa memorian gordetzen dutela eta, implizito hori perentesi artean ipiniko dugu.

⁸ Froga hau aipatzeak eta onartzeak ez du adierazten beste frogarik ez dagoenik. Baina hau nahikoa da bere osagarriarekin. Honen arabera, klase berdinak elementu bat baino gehiago ezin dira jarraian ageri; aurrerago egiaztatuko da azken hau (ikus.(39)).

Distribuzio hau juntagailuari soilik dagokio, -(E)TA-rekin halakorik ezinezkoa da eta. Hau da egitura:

(37) [(P1) ETENALDI ABSOLUTUA # ETA ETENALDI BAKUNA P2 #].

Bestalde, erabilitako adibideek -(E)TA-ren distribuzio interesgarri bat azaldu dute, elementu honi soilik dagokiona. Gorago ikus daitezkeen ((28)tik (30')-ra) esaldien permutazioek azaltzen dute distribuzio hori. Errepikatzen dugu (29a) eta (29b):

(29'a) Elkarren etsai bizi dira-ta, gauz onik ez uritarrak

(29'b) Gauz onik ez uritarrak elkarren etsai bizi dira-ta.

Azken honen egitura hau da:

(38) [[P1] ETEN BAKUNA [P2 [Adizki (elementu)-(e)ta)#]]

Distribuzio hau ez du aurkezten, inoiz ere, ETA elementuak; hain zuzen ere, bere funtsezko funtzioa perpaus-osagai ezberdinen arteko lotura ziurtatzea da, jakina denez.

Hau guzti hau ikusita gero, esan daiteke distribuzio-frogak azaltzen duela ETA eta -(E)TA klase ezberdinetakoak direla: lehena juntagailua izaten bada (eta hor ez dago zalantzarik) bigarrena ez da. Ondorio hau indartu egiten du honako adibide honek:

(39) Ez dakit ba. Lau izan dira-ta eta euren erreztua artu ez dodanik ez neuke esango (E. Erkiaga, Arr. in EUSK, 1984)

Esaldi honen egitura hauxe dugu:

(40) [[P1] [P2 (adizki-ta)] ETA [P2 [P3]]]#

Eta esango bagenu *-ta* elementua juntagailua dela (ETA legez) orduan kontraesan bikoitza genuke: a) *-ta* litzateke lotura eta, era berean, perpaus osagai baten parte; b) klase berako unitate bi jarraian genituzke, juntagailu bi (*-ta* eta ETA) hain zuzen ere, eta jakina denez hori ezinezkoa da. Beraz, *-(e)ta* ez da juntagailua; beste klase baten elementua baino. Gainera, goiko adibide ugarien zehar, subordinazio-erlazioa sortarazten duela susma daiteke-ta, behar da aztertu zein motatako menderagailua den.

4. 2. Ahoskera, Idazkera eta Eransketa

Esan dugunez, -(E)TA aurreko elementuari atxikitzen zaio gehienetan adizkia denari. Fenomeno horregatik dator *enklitikoa* izendatzea: ez du berezko azenturik; baina grafia propioa eduki dezake. Gorago esan denez, duen ahoskera ondorio foniko besterik ez da, horren sustraia gramatika-mailan aurkitzen delarik. Hain zuzen ere, euskarak eransketa-prozedura erabiliz gero, tipologia-sailkapenean hizkuntza eranslea da. Prozedura hori era nagusi bitan gauzatzen dute hizkuntza eransleek: aurrizkien vs. atzizkien bidez; turkiera, adibidez aurrizkiak erabiltzen ditu eta euskarak atzizkiak. Horrek esan nahi du hitz berriak edota hitz mota berriak sortzeko base bati erantsi egiten zaiola zenbait morfema. Enklitikoaren portaerak antzeko prozesu bat azaldu ei du; pentsa daiteke (eta geroago bueltatuko da horretaz) ETA juntagailua eransketa prozesu baten bidez, atxeki egiten zaiola aurreko unitateari (sarritan, adizki jokatu eta salbuespenerako, ikus. gorago (3), (4), (5) eta (6) adibideak) unitate bakarra emateko. Prozesu hori beteta gero, *-(e)ta*-k atzizki legez funtzionatzen du; ez hiztegiko atzizkia, gramatika atzizkia baino eta morfematzat har daiteke. Horrezaz gainera, euskal menderagailuak atzizkiak iza-

nez gero, ba-dirudi *-(e)ta* ere menderagailutzat har dezakegula. Hau da zehatzago jorratu beharko dena.

5. -(E)TA, MENDERAGAILUA

-(E)TA juntagailua ez bada, kategorizazio dikotomikoaren aldeko ohiturari jarraituz, esan beharko genuke menderagailua dela. Honi buruz, ikusiko da ezaugarri batzuketik menderagailua dirudi (5.1.) baina beste batzuketik, ez (5.2.).

5.1. Aldeko ezaugarriak

5.1.1. Formalak

a) Perpaus-osagaien Ordena-Metatzea eta *adizki-(X)-(e)ta*-ren mugimendua:

Goiago, (4 §n), ikusi denez, ordena metatu ahal dute perpaus osagaiek menderakuntza-erlazioan daudenean, menderagailuak metatze hori baimentzen duelako eta *-(e)ta*-k ere bai. Gainera *-(e)ta* dagoen blokea tokiz mugitu daiteke (ikus (29'a), (29'b); (30'a), (30'b) etab.).

b) *-(e)ta* atxikitzen zaio bere aurreko unitateari (gehienetan adizki jokatuari) eta euskal menderagailuak ere bai. Beste toki batean (2.2.) esan denez, *-(e)ta*-k atzizkitzat funtzionatzen du eta menderagailutzat bere kokagunagatik (baina ikus. 5.2§).

c) Goiko (4) eta (6) adibideek erakusti dute *-(e)ta* inkompatibea dela zenbait subordinazio markekin (*ba-*; *-n*, hain zuzen ere). Eta honek erakutsiko luke klase berakoa dela, menderagailua, alegia.

d) Ezaguna denez, juntaketako perpaus osagaiek sujeta bera dutenean –erreferenziaren aldetik (EQUI IS)– sujeta hori aipatzen da lehenengo perpaus osagaian eta ezin da errepikatu beste perpausetan:

(41a.) Txakurra etorri zen (eta) jan (zuen) eta alde-egin (zuen) (Rotaetxe, 1978a: 6.3 §)

non parentesiek adierazten dute erdian daukaten elementua aipatzea hautazkoa dela.

(41b.)*Txakurra etorri zen (eta) txakurrak jan zuen eta txakurrak alde-egin (zuen)

Baina, *ceteris paribus*, subordinazio-kasuan, sujeta lehenbiziko perpaus-osagaian ager daiteke edo beste perpaus-osagai batean, bigarrenetan adibidez:

(42a) Buruko mina du-ta, Manu etxean geratu da.

(42b) Manuk buruko mina du-ta, etxean geratu da.

eta, ostera ere, (2)koarekin konparazioak hau emoten du:

(2'd) Azkarra da-ta, Jon berehala etorriko da, edo

(2'e) Jon berehala etorriko da, azkarra da-ta

e) Hainbat hizkuntzatan, juntagailu eta menderagailuen arteko aldea azaltzeko erabiltzen den froga aplikatu dakieke euskal datuei. Kausari buruz egiten diren itaunen erantzunei dagokie froga hau eta honetan datza: inguruko hizkuntzetan, erantzun horietan eta kausa adierazteko, subordinazio-elementuak erabili behar dira derrigor, koordinazioek sarrerik ez dute-eta:

(43a) ¿Por qué no ha venido X?

(43b) *Pues está enfermo / *Car il est malade / *As he is ill.

(43c) Porque está enfermo / Parce qu'il est malade / Because he is ill.

Hau da euskarazkoa:

(44a) Zergaitik X ez da etorri?

(44b) Gaixorik dago-eta.

(44) Gaixorik dagoelako.

Beraz, froga guzti hauek menderagailu-klaseko alde zokatzten dute, duda barik.

5.1.2. Semantikoak

Irizpide formalen artean, oso garrantzitsua dirudi distribuzioari dagokionna. Ezaugarri horrek plano semantikora garamatza. (E)TA erabiltzean, hitzuna ez du bakarrik emendiozko erlazioa azaltzen; subordinazio erlazioa adierazi nahi du batez ere, testo-inguruz eta distribuzioz baliatuz. Erabiltzen dituen perpaus-osagaiak ez dira, edukiaren aldetik, parekoak: bat *-(e)ta* dararena) bestearenpean dagoelako. Eta *-(e)ta*-ren bidez azaltzen dugun erlazio hori izaten da, corpuseko adibideen arabera eta gaurko erabileraren arabera, KAUSAZKOA.

Esan gabe doa hitzuna erabiltzen duen hiztegia, hau da *-(e)ta*-ren tes- toinguruak, zerikusi handia duela lehen aipatu dugun arrazoiagatik: zer edo zer komunikatzeko eta ulergarria izan dadin, gure esaldiak koherenteak izan behar dira. Beste moduz esanda, diskurtsoaren koherentziak hizkuntza-erabilerari elkar-moldaketa eskatzen dio.

Bestalde, esaldi askotan kausa-ondorio erlazioa eta denborazkoa ez dira ondo bereizten. Zeren eta, zer edo zer, ondorioa bihurtzeko, beste zer edo zer kausatzat hartuta behar izan da eta kausa hori gertatua izan behar da delako ondorio jazo baino lehenago. Horregatik hain sarritan nahastuta ageri zaizkigu aurretik gertatua eta kausa, alde batetik eta, beste alde batetik, ondoren gertatua eta ondorioa.

- Kausa-Ondoriaren Erlazioa: (ikus. goikoen artean, (18), (25)) edo beste hauek:

(45a) Eguraldi euritsua dugu-ta, Museora joango gara

(45b) Museora joango gara, eguraldi euritsua dugu-ta

Dirudienez, *Museora joatea* zatiaren prozesua ondoriotzat ageri da eta *eguraldi euritsua dugu* zatia ondorio horren kausatzat edo aitzakia, azalpena (zehatz handiagorako, 5.1.3 §). Hau da hitzuna aurkezten duen erlazio semantikoa *-(e)ta*-ren medio. Antzeko erlazioa dugu beste esaldi hauetan:

(46) Ariatzako jaiek amaitu dira-ta, gaztedi guztia dau erdi tristetuta (V. Enbeitia Ner in EUSK, 1984)

(47) Laugarrena: Zorionekoak zuzentasunaren gose-egarri diranak, aseak izango dira-ta (Izenik gabe, in EUSK, 1984)

(48) Jatorrizko itzak, gutxi dira-ta, berriz ta berriz osteratu zituen musikariak (AZKUE, Ardi in EUSK, 1984)

(49) Gurean ere onuzkero zai egongo dira-ta, banoa. (Etxaniz, Eus in EUSK, 1984)

- (50) Orraitik be, sendi andiagoo daukan langillearen bearrizanak be andiagoo dira-ta, aloger anditxuagoo ondo be ondo letorkio olako gurasoari (Eguzkitza, G. in EUSK, 1984)
- (51) Gusuak amaitzen zuen: ikusten duzu beraz hobe duzula bihurtu gabe amore eman, gutiontzat laketago izanen da-eta. (J. Mirande - Haur besoetakoo in EUSK, 1984)
- Edukiari dagokionez, aipatutako esaldien egiturak ez du zerikusirik juntagailudun esaldi baten egiturarekin. Hurrengo hau, adibidez:
- (52) Autoz ibiltzea hirian oso gaitza bihurtu digute eta ez daukagu nahiko parkinik
- (E)TAdun esaldi batzuetan, subordinazio-erlazioa denborazkoo dirudi: prozesu biak (53a), (53b) adibidez, orden kronologiko batean aurkeztuak baitira. Baina, ondo begiratu gero, kausa-ondoriozko erlazioa dela ikusten da:
- (53a) Nekeak jota nengoan-eta, oheratu nintzan afaldu barik
- (53b) Oheratu nintzan afaldu barik, nekeak jota nengoan-eta
- Gauza bera jazoten da hain sarritan aipatzen den esaldi ezagun hau:
- (54a) Azkenengo eguna da-eta, goazen guztiok dantzara
- (54b) Goazen guztiok dantzara, azkenengo eguna da-eta
- Dakigunez, esaldi hau kantatu egiten da eta musika-erritmoak azaltzen du, dirudienez, -(e)ta dela hemen duguna. Izan ere, doinua gorantz doa -*ta*-silaba ahoskatu arte eta hau eginda gero, etenaldia egiten da (arnasa hartzeko), *azkenengo eguna daeta* azentu-talde bakarria delarik. Itxuraz, denborazko erlazioa dugula esango genuke. Baina adiera hori hiztegi-unitateen esanguratik datorkio esaldiari. Berez, kausa-ondorio erlazioa dugu hemen ere bai. Eta kantuak *azkenengo eguna da* sintagma kausatzat edota aitzakitatzat aurkezten du ondorio bat lortzeko, *goazen guztiok dantzara*. Erlazio bera dugu ondoko esaldi hauetan:
- (55) Baña otz andija da-ta, ezin ezer egin (Altuna, Joseb in EUSK, 1984)
- (56) Ez barrerik egin, egia da-ta (Azkue Beinb, in EUSK, 1984)
- (57) Zaudete lasai, etorriko da-eta nire mendekuaren txanda (Agirre, Tx. Kresala, 148, in EUSK, 1984)

5.1.3. -(E)TA, *perpau* kausaletako menderagailuen artean

Perpau nagusiarekiko erlazioaren arabera, perpau kausal mota bi bereizten dira⁹: integratuak eta periferikoak. -(E)TA periferikoen artean aipatu behar da. Kausa adierazteko, -(e)lako menderagailuak baino indar gutxiago dauka, zalantza barik; adibideen zehar ikusi denez, -(E)TAK azalpena adierazten du batez ere.

Ez dago esan beharrik kausa adieraztea azalpen-mota bat adieraztea dela, baina kausa denak azalpenak izaten badira ere, azalpen guztiak ez dute neurri berean kausa adierazten. Euskalarien artean, entzun daiteke -(E)TA *bait*-aurrizkiaren baliokidea dela eta honekin banaketa osagarrian (distribución complementaria) dagoela, geografiaren arabera. Izan ere, *bait*-Iparaldeko

⁹ Bereizketa hau Carmen Galan-i zor diogu, cf. C. Galán Rodríguez (2000), "La subordinación causal y final", in I. Bosque, V. Demonte (ed.) (2000): 3597-3642.

elementua da eta *-(e)ta*, ordea, Hegoaldekoa (ikus. beheago 8§). Baliokidetasun hau frogatzeko asmoz, *bait*-edun zenbait esalditan *-(e)ta* ipiniko dugu, era honetan:

(58) Joan den domekan, nebak ez zuen bazkaldu, gauean afaria bait zuen

(59) Joan den domekan, nebak ez zuen bazkaldu, gauean afaria zuen-eta

(60) Berandu jagi nintzen, oso gau txarra eman bainuen

(61) Berandu jagi nintzen, oso gau txarra eman nuen-eta

(62) Egunero, ETB jartzen dugu, euskarazko kate bakarra baita

(63) Egunero, ETB jartzen dugu, euskarazko kate bakarra da-ta

Baliokidetasun horrek *-(e)nez gero* besarka dezake, baldintza sintaktiko batzuen barruan:

(64a) Polita *zenez gero*, erosi egin zuela esan zidan

(64b) Esan zidan erosi egin zuela, polita *baitzen*

Zerrenda horri *-(E)TA*k hornitutako esaldia erantsi behar zaio

(64c) Esan zidan erosi egin zuela, polita *zen-eta*

(64d) Polita *zen-eta*, erosi egin zuela esan zidan

Baliokidetasun horrek ez du besarkatzen *-(e)lako*-dun esaldiak. Adibidez,

(65a), (65b) Zilegi diren bitartean, (65c) ez da onargarria:

(65a) Ez dago inor dendan, atea giltzez itxita *baitago*

(65b) Ez dago inor dendan, atea giltzez itxita *dago-ta*

(65c) **!/?* Atea giltzez itxita *dagoelako* ez dago inor dendan

Azken hau ez da onargarria *atea giltzez itxita dagoelako* kausatik *inor ez dago dendan* asertzioa ondorioztat aurkezten delako. Eta hori ez da egia bizi garen zibilizazioan. Beste modu batean esanda, (65c)ko *ez dago inor dendan* osagaia ez dator, ondorio zuzentzat, *atea giltzez itxita dago* asertziotik. Zeren, gente askok –gero ta gehiago behar bada– barrutik ixten dute giltzez dendetako edo etxetako atea. Bistan dago testoiinguruari egokitzen ez zaiona *-(e)lako* menderagailua da eta lokarria *bait-l-(e)ta* denean, esaldia onargarria da (65a); (65b). Hauetan, hitzunak azalpen edo aitzaki besterik ez du aurkezten *ez dago inor dendan* asertzioa justifikatzeko; ez du konpromezu handirik hartzen kausa erlaziori dagokionez.

Era orokorrean, *-elako*-dun perpaus kausalek *-(e)ta*-dunek baino modu estuago/ integratuzko batean adierazten dute kausa. Komunikazio-ikuspuntetik, *-elako*-dun menpekoaren esangura perpaus nagusiaren esanguraren barruan sartzen edo integratzen da. Formaren aldetik, (65c)ko esaldia –onargarria izatekotan– ez litzateke etenik egin beharko osagaien artean, ez eta komarrik idatzi, *-(e)ta*-dun esaldietan jazoten den legez. Geroago itzuliko gara horretaz.

Beraz, *-(E)TA*-dun perpaus-osagaiak kausa baino gehiago azalpen generikoa adierazten du; eta, kausa adierazteko, azalezko moduan egiten du. Izan ere, enklitikoak osagaien arteko lokarria gauzatzen bada ere, ez du bere perpausa integratzen (edo sartzen) perpaus nagusiaren barruan. Ahoskerak erreflejatzen/azaltzen du egoera hori: goiko 2.2. azpi-atalean esan denez, *-(E)TA*-ren ostean, derrigorrezko etena egin behar da-ta. Orain, hobeto aditzen dugu eten horren funtzioa esaldi osaoren barruan: banatzailea da, perpaus biren egiturak eta esangurak nahiko libreak mantentzeko.

Pragmatikaren aldetik, gauza jakina da *-(e)lako*-dun perpaus kausalak esaldi nagusiaren galdegaia izaten direla sarritan (ikus. “elemento inquirido” in Altube (1929): 208). Honi buruz, orain arte aipatutako *-(E)TA*-dun perpaus ez dutela ezaugarri hori erakutsi eta, gainera, aipatu-berri dugun enklitikoaren banatzaile-propietateagatik, ezin dutela erakutsi onartu behar da.

Gauzak hola izanik, *-(E)TA*-dun perpaus osagaia *-(e)lako*-dun perpaus osagaiarekin konparatuta, askoz libreagoa dela esaldi osoaren barruan. Askatasun (edo autonomia) hori dagokio bai formari eta baita edukiari ere, behe-rago ikusiko denez (cf. 5.3.) Oraingoz, esan behar da *-(E)TA*-k hornitutako osagaiak izaten duela, sarritan, **mintzagai-funtzio pragmatikoa**, hiztunak eta entzuleak elkar-banutzen duten informazioa adierazteko. Ezin izan daiteke galdegaia: horretarako periferikoezia da-eta. Gainera, aditz nagusitik urrun-tze erlatibo hau beste estrategia baten bidez azaldu egiten du hiztunak: goiko 2.2 azpi-atalean ikusi dugunez, *-(e)ta* ahoskatuta gero, derrigorrezko ete-naldiaren bidez. Hori dela eta, separatuta dagoen perpaus-osagai hori ezin izan daiteke galdegaia¹⁰.

Hitz batez, hiztunak kausalitate-prozesutik ateratzen duen dedukzioa perpaus nagusian azaltzen du, dedukzio horren azalpena/arrazoia *-(e)ta*-dun perpaus bideratuz:

(66) Gaur, jaia dela dirudi hiriko kaleak hutsik daude-ta

Hiztunak atera duen dedukzioa *jaia dela* da eta horretarako arrazoia *kaleak hutsik daude-ta* osagaien adierazten du.

5.2. Aurkako arrazoiak

5.2.1 Formalak

a) Hainbat hizkuntzatan, perpausa menpekoa denean, aditz mota bat (borondatezkoak, semantikaren aldetik) eta aditzondo mota batzuk ager daitezke; baina perpaus juntatua denean hau ezinezkoa da:

(67a) Anek alde egin du bakarrik gura zuelako (cf. gazteleraz, frantsesez, ingelesez)

(67b) *Anek alde egin du bakarrik gura zuen-eta (cf. id. id., id.)

(67c) *Anek alde egin du soilik nahi baitzuen

b) Ukapena erabilera: Perpaus kausal batzuetan eta borondatezko aditzekin, ukapena erabiltzeko, menderagailua erabili behar da, eta *-(e)lako*-ren ordez, *-(e)ta* ipintzen badugu, perpaus agramatikala lortzen da:

(68a) Bueno.. etxera joango naiz, baina ez gura dudalako

(68b) *Bueno... etxera joango naiz, baina ez gura dut-eta/ez dut gura-eta

(68c) *Beno, etxera joango gara, baina ez nahi baitut/ ez baitut gura

Baldintza honetatik at, *-(e)ta* zilegi da aditza ukatua izan arren:

(69) Ala izan dedila, bide onezko poza bezelako ondasunik ez da-ta (Muji-ka, Grego. in EUSK, 1984).

¹⁰ Ezaguna denez, galdegaia ez da bakarrik aditzaren ondoan (aurrean) ageri behar; honekin azen-tu-taldea eratu egiten du gainera.

c) Goiko 2.2.1)ean esan dugu *-(e)ta*, menderagailu guztiak legez, adizkiei eranstean zaiela. Baina menderagailuek eransketa mota hau bakarra duten bitartean, *-(e)ta* erantsi ahal zaio adizkiari eta baita beste elementu bati (ikus. (70b), (70c), (70d), (70e)). Izan ere, *bloke* deitura erabili dugu [*adizki+(elementu)+-(e)ta*]. Egitura izendatzeko. Menderagailuek, baina, ezin dute toki finko batetik mugitu. Honekin lotuta, beste berezitasunetaz ohartu behar da: aditzaren barruan menderagailuak eranstean zaizkiela beti adizki jokatuerei, baiezkoetan eta ezezkoetan, jakina denez. Baina *-(E)TA* dugunean, baiezkoetan laguntzaileari erantsi arren, ezezkoetan adizki ez-jokatuari ere erantsi ahal zaio (70b) eta (70b'). Garrantzitsua delako, propietate honetara itzuliko gara, beheko f) puntuan. Oraingoz azpimarratu behar da eransketa mota hori ez dela zilegi *bait-* elementuarekin (ikus. (70f), (70g)).

(70a) Anek kontzertua ondo entzun du-eta, geldituko gara hemen

(70b) Anek kontzertua ez du hortik ondo entzun-eta, geldituko gara hemen

(70b') Anek kontzertua hortik ondo entzun ez du-eta, geldituko gara hemen

(70c) Anek kontzertua ez du ondo entzun hortik-eta, geldituko gara hemen

(70d) Anek hortik ez du ondo entzun kontzertua-eta, geldituko gara hemen

(70e) Anek kontzertua hortik ez du entzun ondo-eta, geldituko gara hemen

(70f) *Anek kontzertua ez du ondo entzun bait-hortik, geldituko gara hemen

(70g) *Anek kontzertua ez du hortik ondo bait-entzun, geldituko gara hemen

Azpimarratzekoa da *-(e)ta*-k duen **mugikortasun** honi esker, bere perpausaren barruan erants dakiok e dozein elementuri (sujetoa izan ezik) hiztunaren aukeraren arabera¹¹. Sujeto-funtzioa duen izen-sintagmari ezin diogu enklitiko erantsi eta debeku honek ez du zer ikusirik aditza [+transitibo] ala [-transitibo] izaerarekin:

(71a) *Anek-*eta* kontzertua hortik ez du ondo entzun, geldituko gara hemen

(71b) *Ane-*eta* kontzertura etorri da

d) Atal honen hasieran (cf. 2.1§ eta (4), (6), (7) adibideak), esan zen subordinaziorako zenbait elementu eta *-(E)TA* inkompatibleak zirela. Hala ere, euskarak badu oso esamolde ezaguna eta erabilia: *adizki-la-(e)ta*. Egitura honek arazo bat sor dezake *-(E)TA*-ri dagokionez. Pentsatzen bada *-la-* elementua menderagailua dela, orduan *-(E)TA*-ren izaera oso zalantzatsua litzateke, zeren klase berako elementu bi ezin joan daitezke katean, bata bestearen ondoan. Jakina, argudiatu ahal da esamolde baten aurrean gaudela-ta, bere elementuak ez dirala libre eta, ondorioz, oso trukagarritasun mugatua

¹¹ Aukera hori lotuta dagoela dirudi hiztunak elementu bati ala beste bati eman gura/behar dion enfasia kausa-erlazioari dagokionez. Adibidez, (70e) esaldiko kausa "entzuteko kalitatearekin" lotuta dirudi eta horregatik aditz-ondo modalari dagokio *-(e)ta*. Hau da lehenbiziko hurbilketa honek erakusten duena. Baina nire idazki honetatik at geratzen den landu bariko arlo bat dauka hemen euskarak, zehatzago ikertu beharko litzatekeena.

dutela. Halan eta guztiz ere, esamoldeak ezin joan daitezke gramatika-arauen aurka. Hona hemen oso erabilia den esamolde honen adibide pare bat:

(72a) Lau modutako auziak aipa daitezke azken urteotan sortutako hitz eratorriak direla eta (EUSK, 1994b: 1079)

Esan gabe doa esaldi mota hauen perpaus osagaiak meta daitezkeela, ondoren ikusten denez:

(72b) Azken urteotan sortutako hitz eratorriak direla eta, lau modutako auziak aipa daitezke

(73) Baña, jazo egin biar dana jazo egingo dala-ta, betor etorteko dana (Otxolu, Ber in EUSK, 1984)

Esamolde hau azalpen kausala adierazteko erabiltzen da eta usadio horretan ez dirudi hiztunak konplementazio-erlaziorik ikusten duenik.

e) *-(e)ta* osotutako perpausok forma alokutiboak erakuts ditzateke eta euskara-arau batek dio alokutibok ez dutela menpeko perpausetan sartzerik. Itxurazko kontraesan honen aurrean, esanda dago: “-ta enklitikoaz osatzen diren perpausetan alokutiboa zilegi da, nahiz eta eskubidea dugun -ta horren enklitikotasunari esker, hain zuzen, perpaus txertatuzat hartzeko” (EUSK, 1994a: 8). Bestalde, aipatu behar da *bait*-aurrizkiak ez duela sartze hori. Hona hemen adibide bat:

(74a) Utz dezagun lana, berandu duk eta (EUSK, 1994a: 8)

(74b) *Utz dezagun lana, berandu bait-duk

Adibide honetara, itzuliko gara 6.3§n.

f) Adibide ugariak erakutsi dute -(E)TAren kokagunea adizki (edota adizki (X))-ren ondoan dela eta hauxe dela menderagailuen kokagunea. Baina badago alde edo diferentzia bat: aditza ukapenean dagoenean, menderagailuak laguntzailearen ondoan geratzen diren bitartean -(E)TA aldatu ahal da tokiz zein laguntzaileari, zein aditz ez jokatuari eransteke. Hona hemen menderagailu tenporalak (75a), (75b) eta menderagailu kausal prototipoak (76a), (76b) erakusten dutena -(e)ta-dun perpausekin konparatuta:

(75a) Neba etortzen **denean**, ordaindu egingo diot Joni

(75b) Neba etortzen **ez denean**, ordaindu egingo diot Joni

(76a) Neba etorri **delako** ordainduko diot Joni

(76b) Neba etorri **ez delako**, ordainduko diot Joni

(77a.) Neba etorri **da-ta**, ordaindu egingo diot Joni

(77b) Nerba etorri **ez da-ta**, ordaindu egingo diot Joni

eta beste posibilitate hau:

(77c) Neba ez da **etorri-ta**, ordaindu egingo diot Joni

g) Azken distribuzio mota honetan, -(E)TA harridura adierazteko erabiltzen da sarritan, baina bere baliokidea (esanguraren aldetik) *bait*- ezin da balio horretarako erabili:

(78a) Zeuk apurtu duzu! Neuk! Ukitu ere ez dut egin-eta! (Zubiri I. Zubiri E. 1991: 576).

(78b) * Ukitu ere ez dut bait-egin!

Ezaugarri formal hauek zalantzan ipintzen dute -(E)TA-ren menderagailu-izaera. Gainera, zenbait aurkako ezaugarri semantiko ere aipatzekoak dira.

5.2.2. *Semantikoak*

a) ETA aurkezten duten esaldi batzuetan, unitate horren ordeztu, -(E)TA ala -(E)LAKO ipintzen bada, esanahi desberdina nabaritzen da; baina *bait*-eta -(E)TA baliokideak dirudite.

(79a) Triste bizi naiz eta hilko banintz hobe (EUSK, 1994a: 19)

(79b) Triste bizi naizelako hilko banintz hobe

(79c) Triste bizi naiz-eta, hilko banintz hobe

(79d) Triste bizi bait naiz, hilko banintz hobe

Pentsa daiteke (79b)ko esaldiak (79c)koak baino gehiago azpimarratzen duela bai kausa-erlazioa 5.1.3 §an azaldu denez, eta bai subordinazio-erlazioa. Alderantziz, azken honetan, bigundu egiten da subordinazio-erlazioa (79a)ko esaldiari gehiago hurbiltzen zaiolako eta baita ere kausazko erlazioa, honen neurria entzulearen irizpidean lagatzeko. Izan ere, (79c) esaldia erabiltzean, azalpen bat kausa trinkoa baino gehiago adierazten du hiztunak, lehen esan denez. Aldi berean, eta subordinazio-nozioari dagokionez, (79c)koa, hau da enklitikoduna, (79b)ko -(e)lakodun perpaus osagaia baino autonomoagoa da *hilko banintz hobe* osagaiaren aurrean; zeren, gorago esanda dagoenez, (79c)ko esaldiaren perpaus-osagaiak elkar bereizten duten bitartean etenaren/komaren medio, hau ez da jazoten (79b)koan. Hemen, eta hau da azpimarratu behar dena, txertatze-prozesua askoz sakonago eta estuago dela dirudi, gramatikaren aldetik, semantikaren aldetik eta, jakina, pragmatikaren aldetik ere bai.

b) Hori dela eta, dedukzio/ondorioari dagokionez, errazago alda daiteke osagai hori (79c)koan (79b)koan baino; lehenengo kasuan menpekotasunaren lokarria ahulagoa delako. Alde horretatik, beheko (80) eta (81) adibide bakoitzean ematen den dedukzioaren/ondorioaren esangurak aurreko perpausaren esanguraren norabidea apurtzen du. Argiago esateko, (79a) adibidean, esaldi osoaren norabide semantikoa. *triste bizi* hitzek markatzen dute. Eta (79 a; b; c; d) esaldietan *triste bizi*-ren esanguraren norabideari ondo moldatzen zaio *hilko banintz hobe*, koherentziari edo adostasunari dagokionez. Baina (80), (81) eta (82)ko esaldietan joera semantikoaren desbideratzea dugu: ageri den dedukzioa/ondorioa *triste bizi* sintagmaren esangurari ez baita-torkio hein berdinean ondo (ikus. 1 Nota). Hiruren arteko konparazioak baina, erakusten du alde interesgarria: (80)ko esaldia eta (81)koa onargarriak diren bitartean, (82)koa oso zalantzatsua dugu:

(80) Triste bizi naiz-eta, umore oneko lagunekin ibili behar naiz gehiago

(81) Triste bizi bait naiz umore oneko lagunekin ibili behar naiz gehiago

(82) ? Triste bizi naizelako umore oneko lagunekin ibili behar naiz gehiago

Izan ere, honetan (82)an, bigarren perpaus-osagaiak ez du adierazten espero dena-ta, esaldiak onargarritasun eskasa du. Zalantza barik, (80)ko edo, (81)ko esaldiak baino askoz onargarritasun txikiagoa, gure ustez. Jakina, interpretazio hau erlatibizatu behar da: semantika-erlazioetan gaude eta, eza-guna denez, edukia(k) gauzatutako baldintzak ez dira arauak izaten, JOE-RAK baino, askoz modu malguago eta pertsonalago batean.

c) Beste ezaugarri bat frogatu behar da. Honetan, kausa/motiboa/aitzakia aipatuta gero, hiztunak, dedukzio/ondoriotzat, ezezko itauna egiten du aurreko kausa horren aurkako joera semantikoa aurkezten duena:

- (83a) * Opari ederra egin dizutelako, zelan ez zaude pozago?
(83b) Opari ederra egin dizute-ta, zelan ez zaude pozago?
(83c) Opari ederra egin baitizute, zelan ez zaude pozago ?
(84a) * Herritar bat hil digutelako zelan ez gara hiletara joango?
(84b) Herritar bat hil digute-ta, zelan ez gara hiletara joango?
(84c) Herritar bat hil baitigute, zelan ez gara hiletara joango?

Pentsa daiteke, (83a) eta (84a) esaldien agramatikaltasunaren arrazoia hau dela: *-lako* menderagailua erabiltzeko perpaus nagusiaren eta menpekoaren joera semantiko bera izan behar dela. Esaldi hau, esaterako, gramatikala litzateke:

(83 d) Opari ederra egin dizutelako zaude poz-pozik.

Eta hori behin baino sarriago aipatu dugunagatik: *-lako*-ren bidez hiztunak oso lotura estua adierazten du kausa eta ondorioaren artean. Hori dela eta, integratu egiten du menpekoa. Eta, jakina, (83) eta (84) serieetako esaldiek aurkezten duten itauna (erretorikoa izaten bada ere) ez da biderik egokiena integrazio hori lortzeko.

6. LABURBILDUZ

6.1. -(E)TA-ren Sailkapena

-(E)TA sailkatzeko betidanik izan diren eragozpenek oraindino diraute. Pentsa daiteke jatorriz emendiozko juntagailua zela eta ez zuela beste funtziorik betetzen. Baina, hizkuntza ugarietan jazoten denez, euskaraz ere emendiozko juntagailuari texto-inguruaren adiera nagusiak kutsatu ahal dio eta lotura hutsez gainera esanahi zirkunstantzialaren bat (oso era orokorrean, jakina) adierazten du. Gauzak horrela, *eta* juntagailuari fenomeno berbera jazo zaiola dirudi. Baina, arrunta den semantika-eragin honetaz gainera, euskararen sintaxiak parte hartu du *eta* juntagailutik -(E)TA enklitikoak eskaintzeko, lehen galdu barik. Hori distribuzioari esker lortu da, hiztunek lortutako/sortutako distribuzio ezberdin bat (eta, behar bada “berri”, baina hemen ez gara diakronia-arazoetan sartuko) kausa-erlazioa oso modu arin edo bigun bat adierazteko.

Beraz, -(E)TA-k bere esanguragatik eta bere kokagune bategatik menderagailutat funtzionatzen badu ere, bere ezaugarri formal batzuketatik ezin da esan menderagailua denik, neurri handi baten halakoa bada ere. Izaera hibrido hau dela eta, lehenbiziko ondorio edo kostatazioa zera da: desoreka bat dugula formaren eta esanguraren artean. Baina, ez dugu pentsatu behar antzeko desorekarik euskaraz bakarrik gertatzen denik. Beste hizkuntza askotan, “miss-matching” edo “sasi-ekontze” fenomenoak aurkitzen baitira: semantika-mailaren aldetik kategorial/klase konkretu batekoa izatea (menderagailua, gure kasuan) eta gramatika-mailaren aldetik beste kategoriakoa. “Desegokitasun” honetatik dator *miss-matching*¹² edo *sasi-ekontze* deitura.

Izan ere, pentsa daiteke enklitikoak ez duela problemarik menderagailua izateko adieraren aldetik, 5.1.1, 5.1.2 eta 5.1.3 azpiataletan ikusi denez. Bai-

¹² Nozio honetaz, ikus. P.W. Culicover – R. Jackendoff (1997).

na formari eta funtzioari dagokienez, juntagailua ez bada ere 4.3 §an ikusi denez, menderagailua izateko gaintitu behar zuen zenbait frogak erakutsi du ez dela menderagailu betea. Zehatzago, goiko lerroek eta bereiziki 5.2.1 azpi-atalaren ondorioak funtsezkoak dira erakusteko debeku ugariak dituela -(E)TA-k menderagailua izateko. Gauzak horrela, bere izaera eztabaigarria izanik, esan dezakegu oraingoz -(E)TA ez dela ez juntagailua ez eta menderagailua ere ez.

6.2. -(e)ta eta bait-

Bestalde, gure azterketa hau harritzekoa dirudi arrazoi bategatik: -(E)TAK *bait*- menderagailua baliokidea duela esan dugu gorago eta *bait*-i buruz ez da halako azterketarik egiten. Baina baliokidetasun hori edukiaren barruan, egiaztatzen da. Hortik kanpo, goiko 5.2.1. azpi-atalera itzuli behar da -(E)TA eta *bait*-en arteko diferentzia formalei eusteko. Azpi-atal horren c), d), e), f), h) frogak dira garrantzitsuenak aldeak eta diferentziak azaltzeko. Azpimarratzekoak dira bereiziki c), d) eta e)koak, zeren -(e)ta-ren berezko ezaugarriak azaltzen dituzte, *bait*-ek falta dituenak. Ikus ditzagun ostera ere ezaugarri hoiek.

6.3. -(E)TA-ren funtsezko bereizgarriak

e) **Propietatea:** Forma alokutiboetan, -(e)ta erabiltzen da, *bait*- ez:

(74'a) Utz dezagun lana, berandu duk eta

(74'b) *Utz dezagun lana, berandu bait-duk

c) **Propietatea:** Oso propietate garrantzitsu hau zenbait adibideren zehar ikus daiteke:

(70'c) Anek kontzertua ez du ondo entzun hortik-eta, geldituko gara hemen.

(85) Zulatu yakun txalupea-ta, laster ondatuko gara (Etxeita, Jos., in EUSK, 1984).

(86) Mendi-eguna diagu bihar-eta, Emioraño joateko asmoa zeukagu (Agirre, Tomás, Uzt., in EUSK, 1984).

Bistan dago, aditza ez den elementuari ere erants dakioke -(e)ta: aditz-sintagmaren esferako elementu bati (aditz-ondoari (70c), (86) edo izenari (85), ikus. gorago (70)a; b; c). Gainera, ikusi denez, eransten zaio partizipioari ere bai, eta ez bakarrik laguntzaileari.

(77') Neba ez da etorri-ta, ordaindu egingo diot Jon-i. (ikus gorago)

d) **Propietatea:** *Dela eta:* Oso esamolde ezagun batean, aditza eta enklitikoaren artean *-la-* ageri da. Ez da esan behar esamolde dela eta, portaera bereizia duela, baina, halan eta guztiz esamoldeen egitura ez da joaten gramatika-arauen aurka. Erabilera honen adibideak oso arruntak dira-ta, ez ditugu hemen errepikatuko, cf. (71a), (71b), (72) edo (73).

Egiaztapen hauek badute zer edo zer amankomuna: -(E)TA-ren *autonomia erlatiboa* azaltzea. Autonomia hori ageri da modu bitan: edo mugitzeko ahaltasunaren bidez (goiko c) eta f) edo *-la-* tartekatze ahaltasunaren bidez (d) propietatea). Enklitikoaren funtsezko ezaugarria da, berezkoa delako eta beste elementu kausalek ez dutelako. Autonomia horri esker, -(e)ta-k *separabilitatea* edo *banatzailetasuna* azaltzen du, hain zuzen ere.

Beste moduz esanda, -(E)TA-ren berezitasuna kokagune batetik askatze-ko duen ahaltasunean datza. Hori dela-ta, separabilitatea edo banatzailetasuna dugu enklitikoaren berezko ezaugarria. Izan ere, perpaus kausalak sartzen dituzten beste elementuen artean, batek ere ez du halako propietaterik eskaintzen. Eta propietate honek adierazten du, hain zuzen ere, enklitikoa ez dela guztiz menderagailua, juntagailua izaten ez bada ere. Bere osagaia ez du perpaus nagusian txertatzen, menpekotasun osoko elementuek legez (*bait*-sartuta). Eta perpaus nagusiarekin eratzen duen esaldiak ez dauka *-elako*-dunak duen trinkotasunik. Enklitikoaren kasuan esaldiko osagaiak nahiko separatuak eta autonomoak mantentzen dira, -(e)lakodun osagaiekin konparatuz. Kontutan eduki behar da banatzailetasuna eta integrazioa¹³ aurkako parametroak dirala: lehenengoaren neurria gehitzen bada bigarrenarena gutxitu egiten da eta alderantziz. Hitz batez, -(E)TA-ren ezaugarriak [-juntagailua] eta [-menderagailua] dira-ta, izaera honek ondorio bitara garamatza: alde batetik, gaitza da sartu deskripzio hau sailkapen dikotomiko baten barruan eta horregatik beste sailkapen egokiago bat proposatzen dugu beherago; bestetik, hobeto ulertzen da alokutibo formei buruzko e) frogaren ondorioa eta itxurazko kontraesana: izan ere, -(E)TA-dun (74') esaldian ez dago benetako menpekotasunik eta, horrexegatik, gramatikala da. Beraz, forma alokutiboek perpaus menpekoetan sartzerik ez dutela dioen euskal araua ez da aldatu behar ez eta salbuespenik gaineratu -(e)tagaitik.

(74'') Utz dezagun lana, berandu duk-eta.

7. KOORDINAZIO ETA SUBORDINAZIO ERLAZIOAK GRADUZKO ESKALAN

Gauzak horrela, irtenbiderik onena, behar bada, sailkapen eskalar bat proposatzea izango da. Hau ere ez da berria Linguistikan: eskala-nozioa (sailkapen dikotomikoaren orde) gero eta gehiago erabiltzen da fenomeno askoren kontua emateko, era malguago/flexibleago batean (ikus., adibidez Hopper–Thompson (1980, 5 §) transibitaterako) edo Rotaetxe (1998), (2002), datibitaterako).

Dugun kasuan, graduzko eskala horren mutur bietan jarriko genituzke Juntagailuak, batean, eta Menderagailuak, bestean. Baina dikotomia trinkoa gorde orde, bitarteko kokagune batzuk posible direla onartuko genuke, *-(e)ta*-ri sarrera emateko. Sailkapen dikotomikoarekin (87) parean jarrita, halakoa litzateke eskala hori (88):

13 Guk geuk, *integrazioaren* bidez, Carmen Galán-ek (cf. C. Galán Rodríguez (2000), op. cit.) adierazten duen baino zerbait gehiago adierazi gura dugu. Hain zuzen ere, subordinazio-marken medio lotzen ditugun perpausak gradu desberdinetan integratuta daude beste perpaus batean (*nagusia* deitutakoa). Alde horretatik menderagailuek integratu egiten dute perpaus txertatua beste batean eta, alderantziz, juntagailuek perpaus osagai bi edo gehiago autonomoak mantentzen dituzte. Enklitikoak, dirudienez, bitarteko funtzioa baimentzen du.

(87)

SAILKAPEN DIKOTOMIKOA, KATEGORIZAZIO TRINKOAREN ARABERA
JUNTADURA/MENDERAKUNTZA
 ERABILTZEN DIREN ELEMENTUAK
JUNTAGAILUAK VS. MENDERAGAILUAK

(88)

SAILKAPEN "CONTINUUM"
 PARAMETROAK

<+SEPARABILITATEA> <+ INTEGRAZIOA>

PERPAUSEN ARTEKO ERLAZIOEN MOTAK

[+ JUNTADURA]>[-JUNTADURA,-MENDERAKUNTZA] > [+MENDERAKUNTZA]
 ERABILTZEN DIREN ELEMENTUEN EZAUGARRIAK, MARKATZAT HARTUTA
 [+ JUNTAGAILUAK] > [-JUNTAGAILUA, -MENDERAGAILUA]> [+MENDERAGAILUA]
 EUSKAL ELEMENTU KONKRETUAK

ETA *-(E)TA* *-ELAKO,* *etab.*

Enklitikoak eraman gaitu irtenbide honetara. Baina, oso egoera ezberdin batean eta problema teoriko baten konponbidearen bila, antzeko proposamena egin da subordinazioaren eta koordinazioaren arteko puntu ilunei buruz. Batez ere, emendiozko *and* juntagailu balioaniztunari dagokionez (cf. P. Culicover–R. Jackendoff (1997): 195-217).

8. -(E)TA-REN ORIGINALTASUNA, GARRANTZIA ETA HEDAPENA

8.1. Originaltasuna eta Garrantzia

Euskal gramatikan¹⁴, -(E)TA enklitikoak garrantzi berezia dauka. Hori ulertzeko, ideia batzuk gogoratu behar dira. Tipologiaren funtsezko sailkapenaren arabera, munduko hizkuntza gehienak morfologiaz edo sintaxiz baliatzen dira (joera nagusizat, jakina) euren unitateen funtzioak gauzatzeko.

Euskara hizkuntza eranslea izanik, morfologiaz baliatzen da batez ere: gu-re hizkuntzan, atzizki kopurua ugaria eta konplexua dugun bitartean, hitzen ordena librea da eta faktore pragmatikoek soilik baldintzatzen dute. Hori kontutan eduki behar da -(E)TA enklitikoaren berezitasuna ulertzeko. Berezitasun hau joskera-prozedura bat erabiltzetik dator, duda barik. Emendiozko ETA eta enklitikoa forma idatzi bera dute (*ETA*) baina hizkuntza-unitate ezberdin bi dira, bakoitzak duen distribuzioagatik. Hau da, sintaxi-ikuspuntutik, zeren hizkuntza denen gramatiketan, distribuzioa joskera-prozedura dugu. Beraz, -(e)ta erabiltzean (behar bada sortzean ere bai, baina prozesu historikoari dagokio arazo hori) euskal gramatika joskera-prozeduraz baliatzen da eta salbuespen hau (salbuespen bakarra ez bada ere) aipagarria da. Onartzen badugu, gainera, hizkuntza askoren historian zehar, morfologiaren aldeko joeratik sintaxiaren aldeko joerara igarotzea izan dela bilakaera normala, orduan -(e)ta enklitikoak aurrerakada bat suposatzen duela euskal gramatikaren barruan onartu behar dugu.

¹⁴ Hizkuntzaren gramatika, ez "gramatika" horri buruz edo beste bati buruz argitaratzen diren idazkiak.

Beraz, -(e)ta-ren originaltasuna kategoriaz aldatzeko (edo ea aldatzeko) ahaltsunean datza, horrek suposatzen baitu lengoiaren ekonomia¹⁵-aplikazio interesgarria. Horretarako, syntaxiz baliatuz, esaldi juntatuetatik esaldi txer-tatuetara igarotzea baimentzen du, azkenengo pausu hau bete barik lagatzen badu ere.

Ez dago esan beharrik enklitiko garrantzitsua dela euskal gramatikan. Enklitikotasunaren prozesuak aberastu egin du hizkuntza eta hiztunok, forma idatzi berbera mantenduz, klase erabilgarri bi ditugu funtzio desberdin bi betetzeko. Emendiozko juntagailua eta [-juntagailu], [-menderagailu] enklitiko. Euskaraz, antzeko portaera duten elementu askorik ez dugu¹⁶.

8.2. -(E)Taren hedapena eta banaketa geografikoa

Mendebaldean erabiltzen da batez ere, bai ahozko barietatean eta bai idatzian. Enklitikoak posibilitate asko ditu eta adiera ugari azal ditzake bere mugikortasunari esker. Agerrerari dagokionez, ez da bakarrik aurkitzen aditz jokatuekin. Aditz ez jokatuekin ere bai, iraganeko eta burutuko partizipio formak emateko. Hitz batez, oso elementu emankorra dugu.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE BEREZIBAR, J. M. (1991) *Euskal Gramática deskriptiboa*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, Labayru Ikastegia. (tomo 2).
- ALTUBE'ar Seber (1929) *Erderismos*, Monogr. *Euskera*, X Urtea, I-IV Zenbakia, Bilbo: Euskaltzaindia.
- ARTIAGOITIA, X., P. GOENAGA, J. LAKARRA (arg/eds.) (2002) *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*, Bilbo: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ATXAGA, B. (1984) *Obabakoak*, Donostia: Erein.
- AZKUE, R. M. de (1933[1969]) *Morfología Vasca* (3 tomos), Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- BOSQUE, I., DEMONTE, V. (dir.) (2000) *Gramática descriptiva de la lengua española*, 3 tomos, Madrid: RAE.
- CULICOVER, Peter W., Ray JACKENDOFF (1997) "Semantic Subordination despite Syntactic Coordination", *Linguistic Inquiry* Vol. 28, Number 2, Spring 1997.
- EUSKALTZAINDIA (1984) *OEH –testo Corpusa–* CD Rom, Bilbo.
- (1994a) *Euskal Gramatika Lehen Urratsak, EGLU IV*, Bilbo.
- (1994b) "Erartopenaz", in *Euskera*, 39, 1994-3: 1079.
- FEUILLET J. (1998) (ed) *Actance et Valence dans les langues de l'Europe*, (Programme EUROTYP/EUROTYP), Berlin, New York: Mouton de Gruyter.

¹⁵ Nozio hau aspalditik erabilia izan da Hizkuntzalaritzan batez ere Linguistika Funtzionalaren barruan. Oraintsu, Juan Carlos Morenok errebindikatu du bere balioa (cf. J. C. Moreno Cabrera (2002)).

¹⁶ Dena dela, "BAINA ENKLITIKOA" aipatu behar da. Oso antzeko egoera eta funtzionamendua dauzka. Ez da aurkaritzako juntagailua, forma idatzi bera izan arren (BAINA) eta kontsesio per-pausetan erabiltzen da, baina ez da menderagailu kontsesibo betea. Dirudienez, unitate honen azterketak ere sailkapen eskalarreko bitarteko kokagunea eskatzen du, aurkaritzako juntagailu eta benetako menderagailu kontsesiboan artean.

- GALÁN RODRÍGUEZ, C. (2000) "La subordinación causal y final", in Bosque, I., Demonte V. (2000), tomo III, 56: 3597-3642.
- HOPPER Paul J., THOMPSON, Sandra (1980) "Transitivity in Grammar and Discourse", *Language*, Vol. 56, Number 2: 251-299.
- MORENO CABRERA, J. C. (2002) "El motor de la economía lingüística: de la ley del mínimo esfuerzo al principio de la automatización retroactiva", *Revista de la Sociedad Española de Lingüística*, 32-1, enero-junio 2002: 1-31.
- ROTAETXE, K. (1978a) *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, Durango: L. Zugaza.
- (1987b) "L'accent basque: Observations et Hypothèses", *La Linguistique*, Revue Internationale/International Review, 1978, 2: 155-177.
- (1981) "Euskal Prosodiaz", *Euskera*, XXVI, 2.ald., 1981-1: 380-396.
- (1998) "Constructions triactanciellles et Datif", in Feuillet, J. (ed) (1998): 390-457.
- (2002) "Datibo-Markazioa", in X. ARTIAGOITIA, P. GOENAGA, J. LAKARRA (arg./eds.): 570-583.
- ZUBIRI I., ZUBIRI E. (1991) *Euskal Gramática Osoa*, Bilbo: Didaktiker.

LABURPENAK

Azterlan honek proposatzen du "-(E)TA enklitiko" deritzon euskal unitatea ardatz jarraitu batean sailkatzea, non tarteko lekua hartuko lukeen juntagailuen eta menderagailuen artean. Hipotesi hori justifikatzeko, aipatu unitatea aztertu da, bere ezaugarri formal eta semantikoen bidez. Portaera fonikoa eta banaketaren portaera bezalako probek agerian uzten dute ez dela juntagailua, ETA juntagailuaren antzeko grafia badu ere. Baina beste proba formal batzuk ikusita, ezin da -(E)TA enklitiko menderagailuen artean kokatu, nahiz-eta bere esanahiak kausazko menderakuntza erlazioa adierazten duen, bazterrekoa hori bai. Horregatik, esaten da [juntagailu-], [menderagailu-] elementua dela eta, ondorioz, sailkapen eskalarra defendatzen da, gero eta zabalduagoa Hizkuntzalaritza teorikoan. Bere *mugikortasun* ezaugarriak nabarmentzen dira. Izan ere, menderagailuak ez bezala, erantsi dakioke esaldiko edozein aditz elementuri. Halaber, bere bazterreko izaera azpimarratzen da kausaren adierazpenean: sartzen duen esaldia autonomo samarra mantentzen da perpaus nagusiarekiko. Horregatik esan daiteke *bereiztailea* dela.

RESUMEN

El trabajo propone clasificar la unidad vasca llamada "-(E)TA enklitiko" en un eje continuo en el que ocuparía un lugar intermedio entre las conjunciones de coordinación y las de subordinación. Para justificar tal hipótesis, se analiza la unidad en cuestión a través de sus rasgos constitutivos formales y semánticos. Pruebas como la de comportamiento fónico y distribución evidencian que no es un elemento de coordinación, pese a su similitud gráfica con la conjunción coordinativa ETA. Pero otras pruebas formales impiden clasificar a -(E)TA enclítico entre los elementos de subordinación, aunque su significado exprese relación de subordinación causal, periférica ciertamente. Por ello, se indica que se trata de un elemento [-coordinativo], [-subordinativo] y se defiende una clasificación escalar, cada vez más común en Lingüística teórica. Se destacan sus rasgos de *movilidad* ya que, a diferencia de los elementos subordinativos puede aglutinarse a cualquier elemento de la esfera verbal de su oración, y su carácter periférico en la indicación de la causa: la oración que introduce se mantiene relativamente autónoma de la principal, lo que permite hablar de su *separabilidad*.

RÉSUMÉ

Le travail permet de classer l'unité basque appelée “-(E)TA enklitiko” dans un axe continue dans lequel il aurait une place intermédiaire entre les conjonctions de coordination et celles de subordination. Pour justifier cette hypothèse, on analyse l'unité en question au moyen de ses traits constitutifs formels et sémantiques. Des preuves comme le comportement phonique et la distribution prouvent qu'il ne s'agit pas d'un élément de coordination, malgré sa ressemblance graphique avec la conjonction de coordination ETA. Mais d'autres preuves formelles empêchent de classer le -(E)TA enclitique parmi les éléments de subordination, quoique sa signification exprime un rapport de subordination causal, certes périphérique. Pour cette raison, on indique qu'il s'agit d'un élément [-coordonatif], [-subordinatif] et on défend un classement scalaire, de plus en plus commun dans la Linguistique théorique. On remarque ses traits de *mobilité* puisque, contrairement aux éléments subordinatifs, il peut s'agglutiner à n'importe quel autre élément de la sphère verbale de sa phrase, et son caractère périphérique dans l'indication de la cause: la phrase qu'il introduit est relativement indépendante de la principale, ce qui permet de parler de sa *séparabilité*.

ABSTRACT

The current article proposes a classification of the Basque unit known as “-(E)TA enklitiko” as part of a continuous axis on which it would occupy an intermediate position between the conjunctions of coordination and subordination. In order to justify this hypothesis, the unit in question is analysed through its constituent features, both formal and semantic. Evidence such as its phonic behaviour and distribution go to show that it is not an element of coordination, despite its similarity in terms of spelling with the coordinative conjunction ETA. Other evidence of form, however, do not permit a classification of the enclitic -(E)TA among the elements of subordination, although its meaning may express causal subordination, albeit peripherally. For these reasons, it is proposed that we are dealing with a [-coordinative], [-subordinative] element and a classification of scale is defended, something becoming more and more common in modern, theoretical linguistics. Its *mobility* is highlighted as, unlike subordinative elements, it can attach itself to any part of the verbal cluster in the clause. Also stressed is its peripheral nature in the indication of cause: the phrase that it introduces remains relatively independent from the main clause, bringing the idea of *separability* to mind.